Bizkaiko Foru Kontratazioko Mahaia

1. Bizkaiko Foru Kontratazioko Mahaia Bizkaiko Foru Aldundiko kontratazio-organoei laguntza teknikoa espezializatua emateko kide anitzeko organoa da, eta eskumena du Ahaldun Nagusiaren Kabineteak, Koordinaziorako eta Estrategia Digitalerako Zuzendaritza Nagusiak eta foru-sailek sustatzen dituzten kontratuak adjudikatzeko prozeduretan eskaintzak ebaluatzeko, kontratu horiek Herri Administraziorako eta Erakunde Harremanetarako Saileko Kontratazio Zerbitzuaren bitartez izapidetzen direnean. Mahaia osatzea nahitaezkoa edo aukerakoa izango da, kontratazioaren arloan indarrean dagoen araudiaren arabera.

2. Bizkaiko Foru Kontratazioko Mahaia kide iraunkor izendatzen dira mahaiburua, hiru mahaikide eta idazkari bat, eta, kide titularrak izendatu ez direnean, kanpoan edo gaixorik daudenean edo, oro har, arrazoi justifikaturen bat dagoenean, ordezkatu egingo dira. Hau izango da mahaiaren osaera:

1) Mahaiburu titularra: Herri Administraziorako eta Erakunde Harremanetarako Saileko Kontratazio Zerbitzua atxikitzen zaion zuzendariordetza.

   Ordezkoa: Herri Administraziorako eta Erakunde Harremanetarako Saileko Kontratazio Zerbitzuko burua.

2) Mahaikide titularra: kontratua sustatu duen foru-sailean, Ahaldun Nagusiaren Kabinetean edo Estrategia Digitalerako Zuzendaritza Nagusian kontratazio-espedienteak izapidetzeko eskumena duen zerbitzuko burua.

   Ordezkoa: hauetako edozein: kontratua sustatu duen foru-sailean, Ahaldun Nagusiaren Kabinetean edo Koordinaziorako eta Estrategia Digitalerako Zuzendaritza Nagusian kontratazio-espedienteak izapidetzeko eskumena duen zerbitzuko edozein ataletako burua edo sail horri atxikitako teknikari bat.

Mesa de Contratación Foral de Bizkaia

1. Es el órgano colegiado de asistencia técnica especializada a los órganos de contratación de la Diputación Foral de Bizkaia y competente para la valoración de las ofertas en los procedimientos de adjudicación de los contratos promovidos por el Gabinete de la Diputada o del Diputado General, la Dirección General de Coordinación y Estrategia Digital y los departamentos forales, que se tramiten por el Servicio de Contratación del Departamento de Administración Pública y Relaciones Institucionales, constituyéndose de forma obligatoria o potestativa según resulte de la aplicación de la normativa de contratación pública.

2. Se designan con carácter permanente como integrantes de la Mesa de Contratación Foral de Bizkaia, una persona para la presidencia, tres personas para las respectivas vocalías y una para la secretaría, cuyas responsabilidades serán suplidas en caso de vacante, ausencia, enfermedad, o en general cuando concurra causa justificada, con arreglo a lo siguiente:

1) Presidencia titular: la subdirección a la que esté adscrito el Servicio de Contratación del Departamento de Administración Pública y Relaciones Institucionales

   Suplencia: la Jefatura del Servicio de Contratación del Departamento de Administración Pública y Relaciones Institucionales.

2) Vocalía titular: la Jefatura de Servicio con competencia en materia de tramitación de expedientes de contratación del Gabinete de la Diputada o del Diputado General, de la Dirección General de Coordinación y Estrategia Digital o del Departamento Foral promotores del contrato.

   Suplencia: indistintamente, la Jefatura de cualquiera de las Secciones del Servicio con competencia en materia de tramitación de expedientes de contratación del Gabinete de la Diputada o del Diputado General, de la Dirección General de Coordinación y Estrategia Digital, o del Departamento Foral promotores del contrato o un/una técnico/a adscrito/a éstos.

3) Aholkularitza juridikoa ematea dagokion mahaikide titularra: Herri Administraziorako eta Erakunde Harremanetarako Saileko Kontratazio Zerbitzuko burua.

Ordezkoa: Kontratazio Zerbitzuan aztertu beharreko gaiaren kontratazio-espedientea izapidetzeko eskumena duen ataleko burua, edo Kontratazio Zerbitzuko edozein atalburu

4) Ekonomiaren eta aurrekontuen arloko kontrola egitea dagokion mahaikide titularra: Ogasun eta Finantza Saileko Fiskalizazio Zerbitzuko burua

Ordezkoa: hauetako edozein: Ogasun eta Finantza Saileko Fiskalizazio Zerbitzuan gastuak fiskalizatzeko eginkizunak dituen ataleko burua edo ekonomiaren eta aurrekontuen arloko kontrola egiteko eginkizuna duen teknikari bat.

5) Idazkari titularra: Kontratazio Zerbitzuan aztertu beharreko gaiaren kontratazio-espedientea izapidetzeko eskumena duen ataleko burua.

Ordezkoa: Kontratazio Zerbitzuko edozein atalburu edo Kontratazio Zerbitzuko edozein atali atxikitako teknikaria.

3) Vocalía titular con función de asesoramiento jurídico: la Jefatura del Servicio de Contratación del Departamento de Administración Pública y Relaciones Institucionales

Suplencia: la Jefatura de la Sección del Servicio de Contratación competente para la tramitación del expediente de contratación del asunto a tratar, o indistintamente, la Jefatura de cualquiera de las otras Secciones del Servicio de Contratación

4) Vocalía titular con función de control económico-presupuestario: la Jefatura del Servicio de Fiscalización del Departamento de Hacienda y Finanzas.

Suplencia: indistintamente, la Jefatura de la Sección con funciones de fiscalización del gasto o un/una técnico/a con función de control económico-presupuestario del Servicio de Fiscalización del Departamento de Hacienda y Finanzas.

5) Secretaría titular: la Jefatura de la Sección del Servicio de Contratación competente para la tramitación del expediente de contratación del asunto a tratar.

Suplencia: indistintamente, la Jefatura de cualquiera de las otras Secciones del Servicio de Contratación o el/la técnico/a adscrito/a a cualquiera de las secciones del Servicio de Contratación.

Bizkaiko Foru Kontratazioko Mahaiko kide guztiek izango dute hitz egiteko eta botoa emateko eskubidea, idazkariak izan ezik, hitz egitekoa baino ez baitu izango.

Horiez gainera, Bizkaiko Foru Kontratazioko Mahaira bildu ahal izango dira, aztertu beharreko gaien arabera, beharrezkoak diren funtzionarioak edo aholkulari adituak, eta izango dute hitz egiteko eskubidea, baina ez botoa emateko.

Todas las personas integrantes de la Mesa de Contratación Foral de Bizkaia tendrán voz y voto, a excepción de la persona que ostenta la secretaría que solo tendrá voz.

A las reuniones de la Mesa de Contratación Foral de Bizkaia podrá incorporarse el personal funcionario o personal asesor especializado que resulte necesario según la naturaleza de los asuntos a tratar, que actuará con voz, pero sin voto.

3. Bizkaiko Foru Kontratazioko Mahaia baliozko moduan eratzeko, presente egon beharko dute mahaiburuak, idazkariak eta aholkularitza juridikoan eta ekonomia-aurrekontu kontrolean jarduteko eginkizuna esleiturik dutenak.

3. Para la válida constitución de la Mesa de Contratación Foral de Bizkaia deberán estar presentes quienes tengan encomendadas las funciones de presidencia, secretaría, asesoramiento jurídico y control económico-presupuestario.

Bizkaiko Foru Kontratazioko Zentrala

1. Bizkaiko Foru Kontratazioko Zentrala Herri Administraziorako eta Erakunde Harremanetarako Sailari atxikitako kide anitzeko organo bat da, eta hari dagokio kudeatzea125/2016 Foru Dekretuaren II. eranskinean xehatzen diren eskuratze zentralizatuko ondasun, obra eta zerbitzuen espedienteak; izan ere, eginkizun hori esleitzen dio Bizkaiko Foru Aldundiaren 2016ko uztailaren 20ko foru-dekretu horrek, zeinaren bidez sortzen baita Bizkaiko Foru Kontratazioko Zentrala eta arautzen haren osaera.

2. Bizkaiko Foru Kontratazioko Zentralak kontratazio mahai gisa jarduten duenean, haren osaera eta funtzionamendua Bizkaiko Foru Kontratazioko Mahaiarenak berdinak izango dira.

Central de Contratación Foral de Bizkaia

1. La Central de Contratación Foral de Bizkaia es el órgano colegiado adscrito al Departamento de Administración Pública y Relaciones Institucionales responsable de la gestión de expedientes de los bienes, obras y servicios de adquisición centralizada que se detallan en el anexo II del Decreto Foral de la Diputación Foral de Bizkaia 125/2016, del 20 de julio, por el que se crea y se regula la composición de la Central de Contratación Foral de Bizkaia

2. Cuando la Central de Contratación Foral de Bizkaia actúe como mesa de contratación, su composición y funcionamiento serán los mismos que los de la Mesa de Contratación Foral de Bizkaia.